


PISA 2003 PROIEKTUA

Matematikako eta Problemak Ebazteko
itemen adibideak



ISEI·IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

www.isei-ivei.net

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



PISA 2003 PROIEKTUA

Matematikako eta Problemak Ebazteko
itemen adibideak



ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

ESKERRAK EMATEN DIZKIOGU INECSE ERAKUNDEARI PROBA HAUEK
HEDATZEN LAGUNTZEAGATIK.

Argitaraldia: 2005eko abuztua

© ISEI•IVEI

ISEI•IVEI-k ARGITARATUTA

Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3. - 48015 Bilbao
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

EGILEA: INECSE

BERRIKUSKETA: ISEI-IVEI

DISEINUA:

Onoff Imagen y Comunicación / www.eonoff.com

AURKIBIDEA

1. Atala. Matematikako probak	5
• Ibiliz	8
• Kuboak	11
• Haztea	12
• Lapurretak	16
• Zurgina	18
• Interneten "txateatzen"	19
• Truke-tasa	21
• Esportazioak	24
• Koloretako goxokiak	26
• Zientzi azterketak	27
• Feria	28
• Apalak	29
• Zaborra	30
• Lurrikara	31
• Aukerak	32
• Azterketaren puntuazioa	33
• Haurrentzako oinetakoak	35
• Patinetea	36
• Ping-pong lehiaketa	39
• CO ₂ mailak	40
• Espazioko hegaldia	43
• Eskailera	44
• Kubo zenbakidunak	45
• Lehendakariarentzako babesak	47
• Autorik onena	48
• Eskailera-eredua	50
2. Atala. Problemak ebazteko probak	51
• Liburutegi mailegu-sistema	54
• Zenbaki bidezko diseinua	59
• Ikasketaren diseinua	63
• Garraiobide-sistema	65
• Haurren udalekua	68
• Izozkailua	70
• Behar energetikoak	73
• Zinemara joatea	76
• Oporrak	79
• Ureztatzea	82

Matematikako probak

1

Probak unitateetan taldekatuta agertzen dira, estimulu komun gisa balio duen testu edota irudi batekin. Aurkezpen honetan unitateen araberrako jatorrizko antolamendua errespetatzen da baita estimulu komuna ere.

Galdera bakoitzaren testuak hiru zati ditu:

Galderaren enuntziatua

Ikasleek probaren koadernoan ikusi duten guztia biltzen du.

Ezaugarrien eta emaitzen laukia

Ondokoak biltzen ditu:

- Edukia edo ezagutza-eremua: Espazioa eta forma, Aldaketa eta erlazioak, Kantitatea eta Probabilitatea.
- Egoera: pertsonala, publikoa, hezkuntza- edo lanekoa eta zientifikoa.
- Gaitasuna edo ezagutze-prozesua: erreprodukzioa, konexioa eta hausnarketa (konplexutasun-maila txikienetik handienera ordenatuta).
- Zailtasuna: adierazitako itemari emandako erantzun-ereduaren emaitzazko puntuazioa 500eko batezbesteko eskalan eta 100eko desbiderapen tipikoan. 500 balioa ELGAko herrialdeen batezbestekoari dagokio. Puntuazioen maila Matematikako goranzko sei zailtasun-mailetan banatzen da. Galdera batzuk oso sinpleak dira eta, beraz, ez dira 1. mailara ere iristen.
- Erantzun zuzenak: ezer adierazten ez denean dagokion puntuazioa edo gehienezko puntuazioa lortu duten ikasleek portzentajea adierazten dute; ELGAko herrialde guztiena, Espainiarena eta hiru autonomi erkidegoena barne hartzen dira beti, hain zuzen ere beren lagina nahiko zehaztasun estatistiko handiarekin bereizitako datuak lortzeko adina zabaldu zuten erkidegoena.

Puntuazio-irizpideak

- Galdera itxietan edo erantzun laburra eskatzen duten horietan, kalifikazio-irizpidea erantzun zuzenean datza besterik gabe.
- Galdera irekietan edo erantzun luzea eskatzen duten horietan, puntuazio-irizpideak dagokion puntuazioa emateko zuzentzaileak kontuan hartu behar dituen alderdiak zehazten ditu.

Lortu daitezkeen puntuazioak 0 eta 3 puntu bitartekoak dira galdera bakoitzeko, betiere unitate osoetan, hamartarrik gabe. Erantzun okerrak 0 puntu lortzen ditu. Galdera gehienek, horien artean erantzun itxia eskatzen duten guztiek, 1 puntuko gehienezko puntuazioa dute. Galdera ireki askok 2 puntuko erabateko kreditua lortzen dute, edo 1 puntuko puntuazio partziala. Kasu zehatz batean 3 puntuko gehienezko puntuazioa lor daiteke, eta 2 eta 1 puntuko bi puntuazio partzial.

Puntuazioa kodeen bidez ematen da, normalean zifra batekoak izanik. Aurreikusitako kodeak bi zifrakoak direnean, lehenak puntuazioa adierazten du eta bigarrenak erantzun-mota. Bigarren zifra hori erantzunen erregulartasun tipikoak identifikatzeko da (ohikoa den hutsegite mota edo erantzun zuzenera iristeko erabilitako estrategia zehatza), didaktikako espezialistek ondoren aztertu ahal izango dituztenak.

IBILIZ



Argazkian gizon baten oinatzak ikusten dira. P urrats bakoitzaren luzera da, hurrunez hurruneko bi oinatzen atzealdeko arteko tartea alegia.

Gizonezkoentzat, $\frac{n}{P}$ formulak n eta P -ren arteko proportzioa erakusten du, gutxi gorabeherakoa behintzat.

Hona formularen azalpena:

n = urratsak minutuko; P = urrats bakoitzaren luzera, metrotan.

1. GALDERA: IBILIZ

M124Q01-0129

Formula Unairen ibilerari aplikatzen badiogu, Unai minutuko 70 urrats ematen dituela jakinda, zein da bere urrats bakoitzaren luzera? Erakutsi zure lana.

PUNTUAZIOA:

ERABATEKO KREDITUA

2 kodea: 0.5 m edo 50 cm, (unitatea ez da beharrezkoa).

- $70/p = 140$
- $70 = 140 p$
- $p = 0,5$
- $70/140$

KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

- 70 cm.

9 kodea: Erantzunik ez.

1. galdera. IBILIZ

M124Q01		ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Aldaketa eta erlazioak	ELGA	36,3
Egoera	Pertsonala	Espainia	38,4
Gaitasuna	Erreprodukzioa	Gaztela eta León	44,6
Zailtasuna	611 (maila 5)	Katalunia	33,9
		Euskadi	50,2

Oharra: "PISA 2003 Ebaluazioaren Lehen Txostena"-n agertzen diren portzentaiak eta orain ematen diren artean aldaketa txiki bat dago. Txostenean galderari erantzuten zioten ikasle guztiekin egin zen kalkulua eta orain berriz galdera aurkeztu zitzaion ikasle kopuru osoaz, nahiz eta itemari erantzun ez.

2. GALDERA: IBILIZ

M124Q01 - 00 21 22 23 24 31 99

Imanolek badaki bere urrats bakoitzaren luzera 0,80 metro dela. Aurreko formula guztiz bat dator bere ibilerarekin. Kalkulatu Imanolen ibiltzeko abiadura, metroak minutuko eta kilometroak ordukotan. Erakutsi zure kalkuluak.

PUNTUAZIOA:**ERABATEKO KREDITUA (3 PUNTU)**

31 kodea: Erantzun zuzena (unitatea ez da beharrezkoa) bietan metro/minutu eta km/h:

$$n = 140 \times 0,80 = 112.$$

Minutuko ibiltzen da $112 \times 0,80$ metro = 89.6 metro.

Bere abiadura 89.6 metro minutuko da.

Beraz bere abiadura 5.38 or 5.4 km/hr da.

31 kodea ematen da bi erantzun zuzenak agertzen denean (9.6 eta 5.4) nahiz eta azalpenak agertu ez. Kontuan izan biribiltze-erroreak onartzen dira. Adibidez, 90 metro minutuko eta 5.3 km/hr (89×60) onartzen dira.

- 89,6; 5,4.
- 90; 5,376 km/h.
- 89,8; 5376 m/h [kontuan izan bigarren erantzuna unitaterik gabe ematen denean 22 kodea erabili behar dugu).

KREDITU PARTZIALA (2 PUNTU)

21 kodea: 31 kodea bezalakoa da, baina ez du biderkatu 0.80z urrats minutukotik metro minutukora bihurtzeko. Adibidez, bere abiadura 112 metro minutuko da eta 6.72 km/hr.

- 112; 6,72 km/h

22 kodea: Abiadura metro minutuko zuzena (89.6 metro minutuko) baina kilometro ordukora ez du bihurtu edo ez du ipini.

- 89,6 m/min, 8960 km/h.
- 89,6; 5376
- 89,6; 53,76
- 89,6; 0,087 km/h
- 89,6; 1,49 km/h

23 kodea: Metodoa zuzena (argi adieraztua) baina akats txiki bat(batzuk) kalkuluetan 21 eta 22 kodetan ez dago sartuta. Eraitza ez dago zuzena.

- $n = 140 \times 0,8 = 1120$; $1.120 \times 0,8 = 896$.
Bera ibiltzen da 896 m/min, 53.76km/h.
- $n = 140 \times 0,8 = 116$; $116 \times 0,8 = 92,8$. 92,8 m/min; 92,8 m/min \rightarrow 5,57km/h.

24 kodea: 5.4 km/hr ematen du bakarrik, baina 89.6 metro/min ez (bitarteko kalkuluak ez dira egertzen).

- 5,4
- 5,376 km/h
- 5.376 m/h

KREDITU PARTZIALA (1 PUNTU)

11 kodea: $n = 140 \times 0,80 = 112$. Azalpenak txarto daude edo ez du agertzen.

- 112.
- $n = 112$; 0,112 km/h
- $n = 112$; 1120 km/h
- 112 m/min, 504 km/h

KREDITURIK EZ

00 kodea: Beste erantzun batzuk.

99 kodea: Erantzunik ez.


2. galdera. IBILIZ

M124Q01	PUNTU 1	ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Aldaketa eta erlazioak	ELGA	19,9
Egoera	Pertsonala	Espainia	23,7
Gaitasuna	Erreprodukzioa	Gaztela eta León	26,7
Zailtasuna	605 (maila 4)	Katalunia	24,9
		Euskadi	30,4

M124Q03	PUNTU 2	ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Aldaketa eta erlazioak	ELGA	9,0
Egoera	Pertsonala	Espainia	8,3
Gaitasuna	Erreprodukzioa	Gaztela eta León	11,3
Zailtasuna	611 (maila 5)	Katalunia	6,2
		Euskadi	12,0

M124Q03	PUNTU 3	ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Aldaketa eta erlazioak	ELGA	8,0
Egoera	Pertsonala	Espainia	7,5
Gaitasuna	Erreprodukzioa	Gaztela eta León	8,6
Zailtasuna	723 (maila 6)	Katalunia	12,0
		Euskadi	8,7

KUBOAK



3. GALDERA: KUBOAK

M145Q01

Argazki honetan sei dado daude (a) tik (f)ra sailkatuak. Dado guztietarako arau bat dago: Aurrez aurreko alboetan dauden puntuak gehitzen baditugu, emaitza beti zazpi da.

Ilatzi zenbat puntu dauden dado bakoitzaren beheko aldean, taula honetako gelaskak erabiliz.


(a)	(b)	(c)
(d)	(e)	(f)

PUNTUAZIOA

ERABATEKO KREDITUA

1 kodea: Goiko ilara (1 5 4) Beheko ilara (2 6 5). Alboko erantzunak erakusten digu dadoaren alderdiak era onar daitezkeela.

1	5	4
2	6	5



KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.


3. galdera. KUBOAK

M124Q01		ERANTZ. ZUZENAK		%
Edukia	Espazioa eta forma	ELGA		68,0
Egoera	Lanekoa	Espainia		72,5
Gaitasuna	Erreprodukzioa	Gaztela eta León		78,5
Zailtasuna	478 (maila 2)	Katalunia		78,0
		Euskadi		76,4

HAZTEA

GAZTEAK GEHIAGO HAZTEN DIRA

Grafiko honetan agertzen dira Herbeheretako neska-mutilen batez besteko garaierak 1998an,



4. GALDERA: HAZTEA

M150Q01-0 1 9

Kontuan izanda 1980tik hona 20 urteko nesken batez besteko garaiera 2,3 cm gehitu dela, 170,6 cm-ra iritsi direlarik, zein zen 20 urteko neska baten batez besteko garaiera 1980. urtean?

Erantzuna: cm

PUNTUAZIOA

ERABATEKO KREDITUA

1 kodea: 168.3 cm (Unitatea emanda dago)

KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

4. galdera. HAZTEA

M150Q01		ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Aldaketa eta erlazioak	ELGA	67,0
Egoera	Zientifikoa	Espainia	66,5
Gaitasuna	Erreprodukzioa	Gaztela eta León	70,4
Zailtasuna	477 (maila 2)	Katalunia	68,7
		Euskadi	69,7

5. GALDERA: HAZTEA

M150Q03-01 02 11 12 13 99

Azaldu nola adierazten duen grafikoak nesken hazkuntza moteldu egiten dela 12 urtetik aurrera.

PUNTUAZIOA**ERABATEKO KREDITUA**

Hemen gakoa honetan datza: erantzuna emakumeei buruzko grafikoaren goranzko edo beherazko indizearen "aldaketari" buruzkoa izan behar dela. Hori inplizituki edo esplizituki egin daiteke. 11 eta 12 kodeak grafikoaren kurbaren okerraren aipamen esplizituari buruzkoak dira, eta 13. kodea konparazio inplizituari buruzkoa da egungo hazteko kopurua erabiliz 12 urte baino lehen eta ondoren.

11 kodea: 12 urtetik aurrera gutxitutako okerduraren kurbari dagokio eguneroko hizkera erabiliz eta ez matematikako hizkera.

- Lerroa ez doa gora jadanik, zuzen mantentzen da.
- Kurba egonkor mantentzen da.
- Zuzenagoa da 12 urte ondoren
- Nesken lerroa berdintzen hasten da eta mutilena handiagoa egiten da.
- Zuzentzen da eta mutilen grafikoa gora egiten jarraitzen du.

12 kodea: 12 urtetik aurrera gutxitutako okerduraren kurbari dagokio matematikako hizkera erabiliz.

- Okerdura txikiagoa dela ikus daiteke
- Grafikoaren aldaketa portzentaia jaisten da 12 urtetik aurrera.
- [Ikasleak kurbaren angeluak X ardatzarekiko neurtzen du 12 urte bete aurretik eta ondoren.] Orokorrean, "portzentaia", "okerdura" edo "aldaketa malda" bezalakoak hitzak erabiltzen badira matematikako hizkera erabiltzen ari gara.

13 kodea: Egungo hazkundera konparatuz (konparazioa inplizitua izan daiteke).

- 10 eta 12 urte bitartean hazkundera 15 zentimetro inguruan dago, baina 12 eta 20 urte bitartean hazkundera 17 zentimetrokoa da soilik.
- 10 eta 12 urte bitartean batz besteko hazkundera urtero 7.5 zentimetrokoa da, baina 12 eta 20 urte artean 2 zentimetro urtero baino ez dute hazten.

KREDITURIK EZ

01 kodea: Ikasleak adierazten du emakumeen altuera gizonena baino txikiagoa dela, baina ez du aipatzen emakumeen grafikoaren malda edo emakumeen hazkunderaren portzentaia 12 urte bete baino lehen eta ondoren.

- Emakumeen lerroa gizonena baino baxuago dago.

Ikasleak adierazten badu emakumeen grafikoa ez dela hain aldapatsua, BAI ETA grafikoa hori gizonena baino baxuagoa dagoela, erabat zuzena dela esan beharko genuke(11, 12 edo 13 kodeak). Hemen ez gaude gizonen eta emakumeen arteko grafikoak konparatzen, beraz, alde batera utzi beharko genuke konparazio horri buruzko egiten diren aipamenak eta beste erantzunetan oinarritzen den epaia egin.

02 kodea: Beste erantzun ez-zuzen batzuk. Adibidez, galdera ez da grafikoaren ezaugarriei buruzkoa, galderak argi eta garbi galdetzen du nola grafikoak honako hau erakusten duen:

- Las chicas maduran antes.
- Neskak pubertaroan sartzen direlako mutilak baino lehenago eta hazteko mugara mutilek baino lehen heltzen direlako
- Neskak 12 urte bete ondoren ez dute gehiegi hazten. [Nesken hazkundera 12 urte bete ondoren geldotzen dela baieztatzen du eta ez du grafikoari buruzko aipamenik egiten

99 kodea: Erantzunik ez.

5. galdera. HAZTEA

M150Q03		ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Aldaketa eta erlazioak	ELGA	44,8
Egoera	Zientifikoa	Espainia	36,5
Gaitasuna	Konexioa	Gaztela eta León	35,8
Zailtasuna	574 (maila 4)	Katalunia	52,0
		Euskadi	35,5

6. GALDERA: HAZTEA

M150Q02-00 11 21 22 99

Grafiko horren arabera, batez beste, noiztik noiz arte izaten dira neskak beren adineko mutilak baino altuago?

.....

.....

.....

PUNTUAZIOA

ERABATEKO KREDITUA

21 kodea: Tarte egokia eman, 11 eta 13 urte bitartean

- 11 eta 13 urte bitartean
- 11 eta 13 bitartean neskek batz bestea mutilak baino altuago dira
- 11-13.

22 kodea: Neskak mutilak baino altuago dira 11 eta 12 urte dituztenean (Erantzun hori zuzena da eguneroko hizkeran, 11 eta 13 urte bitarteko tarteari dagokiolako).

- Neskak mutilak baino altuago dira 11 eta 12 urte dituztenean
- 11 eta 12 urtekoak

KREDITU PARTZIALA

11 kodea: 11, 12, 13 urte buruzko aipamenak, erabat zuzena sailean sartuta ez daudenak.

- 12tik 13ra.
- 12.
- 13.
- 11.
- 11.2tik 12 .8ra

KREDITURIK EZ**00 kodea:** Beste erantzun batzuk.

- 1998.
- Neskak mutilak baino altuago dira 13 urte baino gehiago dituztenean.
- Neskak mutilak baino altuago dira 10 eta 11 urte bitartean.

99 kodea: Erantzunik ez.**6. galdera. HAZTEA**

M150Q02		ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Aldaketa eta erlazioak	ELGA	28,1
Egoera	Zientifikoa	Espainia	19,2
Gaitasuna	Erreprodukzioa	Gaztela eta León	19,0
Zailtasuna	420 (maila 1)	Katalunia	27,6
		Euskadi	25,3

M150Q02		ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Aldaketa eta erlazioak	ELGA	54,7
Egoera	Zientifikoa	Espainia	62,4
Gaitasuna	Erreprodukzioa	Gaztela eta León	65,0
Zailtasuna	525 (maila 3)	Katalunia	57,0
		Euskadi	58,6


LAPURRETAK

7. GALDERA: LAPURRETAK

M179Q01-01 02 03 04 11 12 21 22 23 99

Telebistako kazetari batek ondoko grafikoa erakutsi du eta zera esan du:

“1998tik 1999ra lapurreten kopurua izugarri handitu dela erakusten du grafikoak”.



Zure iritziz, kazetariaren grafikoa interpretazioa, zuzena al da? Arrazoitu zure erantzuna.

PUNTUAZIOA:

[Oharra: kode hauetan EZ hitzaren erabilerak grafikoa interpretazioa DESEGOKI guztien inguruko baieztapenak hartzen ditu barne. BAI hitzak, grafikoa interpretazio egokien inguruko baieztapenak hartzen ditu barne. Mesedez, ikaslearen erantzunak grafikoa interpretazio zuzena edo okerra egiten duen ziurtatu behar da, eta ez hartu BAI edo EZ hitzak bakarrik kodeen irizpide gisa.]

ERABATEKO KREDITUA

21 kodea: Ez, ez da arrazoizkoa. Grafikoa alde txiki bat baino ez dela erakusten ideian oinarritzen da.

- Ez da arrazoizkoa. Grafiko osoa erakutsi beharko lukete.
- Ez dut uste grafikoa interpretazioa arrazoizkoa denik, grafiko osoa erakutsiz gero ikusi dezakegu lapurretan hazkunde txikia dagoela.
- Ez, erabili duelako grafikoa goiko alde eta grafiko osoa ikusiz gero 0-520era ez luke hainbeste igoko.
- Ez, grafikoa bidez ematen du hazkunde handia dagoela, baina zenbakiak ikusiz gero hazkunde ez da hain handia.

22 kodea: Ez, ez da arrazoizkoa. Portzentajeen edo portzentajeen hazkundean arrazoi zuzenak ematen ditu

- Ez, ez da arrazoizkoa. 10 ez da hazkunde handia 500ko kopuru osoarekin konparatuz.
- Ez, ez da arrazoizkoa. Portzentajearen arabera hazkundea %2koa baino ez da izan.
- Ez, 8 lapurretek %1.5ko hazkunde da. Nire ustez ez da gehiegi.
- Ez, aurren 8 edo 9 gehiago izango dira, 500ekin konparatuz ez da gehiegi.

23 kodea: Datuak behar dira iritzi bat emateko.

- Ezin dugu izan hazkunde handia izan den ala ez. 1997 urtean eta 1998 urtean lapurreten kopuru bera izan bazen, orduan esan dezakegu hazkunde handia dagoela 1999 urtean.

- Ezin dugu jakin “handia” zer esan nahi duen behintzat bi aldaketa behar ditugulako aldaketa handia eta txikiak hitz egiteko.

KREDITU PARTZIALA

11 kodea: Ez, ez da arrazoizkoa, baina azalpena ez du inolako zehaztasunik.

- BAKARRIK lapurreten kopuru zehatzean emandako hazkundean oinarritzen da, baina ez da kopuru osoarekin konparatzen.
- Ez da arrazoizkoa. 10 lapurreta gehiago egon ziren gutxi gorabehera. “Handia” hitzak ez du azaltzen lapurreten hazkundearen errealitatea. Hazkundea gutxi gorabehera 10ekoa baino ez ze izan eta horri ezin diogu “handia” deitu.
- 508tik 515ra igotzea ez da gehiegi..
- Ez, 8 edo 10 ez baita kopuru handia.
- 507tik 515ra hazkundea da baina ez da handia.

[Kontuan izan grafikoaren eskala ez dago argi, onartzen du 5 eta 15 bitarteko lapurreta kopuru zehatza.]

12 kodea: Ez, ez da arrazoizkoa, metodoa egokia da baina neurketa-akats gutxiago daude.

- Metodoa eta ondorioak zuzenak dira baina kalkulaturako portzentaia %0.03koa da.

KREDITURIK EZ

01 kodea: Ez, ez dago inolako azalpenik edo ez dira zuzenak.

- Ez, ez nago ados
- Egileak ez luke erabili beharko “handia” hitza.
- Ez, ez da arrazoizkoa, egileek beti gauzak putzen dituzte.

02 kodea: Bai, grafikoaren itxuran oinarritzen da eta lapurreten kopurua biderkatu zela adierazten du

- Bai, grafikoa bitan handitzen da.
- Bai, lapurreten kopurua ia biderkatu egin da.

03 kodea: Bai, ez du azalpenik ematen edo 02 kodean ez dauden azalpenak ematen ditu.

04 kodea: Beste erantzun batzuk.

99 kodea: Erantzunik ez.

7. galdera. LAPURRETAK

M179Q01		ERANTZ. ZUZENAK		%
Edukia	Probabilitatea	ELGA		28,1
Egoera	Soziala	Espainia		31,3
Gaitasuna	Konexioa	Gaztela eta León		35,6
Zailtasuna	577 (maila 4)	Katalunia		26,6
		Euskadi		30,5


M179Q01		ERANTZ. ZUZENAK		%
Edukia	Probabilitatea	ELGA		15,4
Egoera	Soziala	Espainia		9,9
Gaitasuna	Konexioa	Gaztela eta León		8,3
Zailtasuna	577 (maila 4)	Katalunia		16,7
		Euskadi		8,5

ZURGINA

8. GALDERA: ZURGINA

M266Q01

Zurgin batek 32 metroko luzerako hesia egiteko adina taket ditu eta lorategi baterako hesia egin nahi du. Honako diseinuak ditu buruan lorategirako:



“Bai” ala “Ez” hitzak biribil batez markatuaz, adieraz ezazu diseinu horietako zein egin dezakeen eta zein ez 32 metro taketekin.

Hesiaren diseinua	32 metroko luzerako hesia egin daiteke diseinu hau erabiliz?
A diseinua	Bai / Ez
B diseinua	Bai / Ez
C diseinua	Bai / Ez
D diseinua	Bai / Ez

PUNTUAZIOA:

ERABATEKO KREDITUA

- 1 kodea:** Laurak ondo.
 A diseinua Bai
 B diseinua No
 C diseinua Bai
 D diseinua Bai

KREDITURIK EZ

- 0 kodea:** Hiru ondo
9 kodea: Erantzunik ez.


CARPINTERO. 8. galdera

M266Q01		ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Espazioa eta forma	ELGA	20,0
Egoera	Hezkuntzako	Espainia	12,9
Gaitasuna	Konexioa	Gaztela eta León	15,4
Zailtasuna	687 (maila 6)	Katalunia	7,0
		Euskadi	16,2


INTERNETEN "TXATEATZEN"

Mark (Sydney, Australia) eta Hans (Berlin, Alemania) elkarrekin komunikatzen aritzen dira Interneten "txateatuz". Interneten ordu berean sartu behar dute "txateatu" ahal izateko.


"Txateatzeko" ordu egokia aurkitzeko, Markek munduko orduen mapa batean begiratu zuen eta ondoko ordu hauek aurkitu zituen:



Greenwich 12 gauerdia



Berlin gaueko 1:00



Sydney goizeko 10:00

9. GALDERA: INTERNETEN "TXATEATZEN"

M402Q01 - 0 1 9

Sydneyn arratsaldeko 7:00ak badira, zer ordu da Berlinen?

Erantzuna:

PUNTUAZIOA

ERABATEKO KREDITUA

1 kodea: Goizeko 10:00ak edo 10.00.

KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

9. galdera. INTERNETEN "TXATEATZEN"

M266Q01		ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Aldaketa eta erlazioak	ELGA	53,7
Egoera	Pertsonala	Espainia	46,0
Gaitasuna	Konexioa	Gaztela eta León	45,6
Zailtasuna	533 (maila 3)	Katalunia	47,1
		Euskadi	49,9

10. GALDERA: INTERNETEN "TXATEATZEN"

M402Q02 - 0 1 9

Mark eta Hanssek ezin dute txateatu goizeko 9:00ak eta arratsaldeko 4:30ak bitartean (beren tokiko ordua), eskola-orduak direlako. Gainera, gaueko 11:00etatik goizeko 7:00ak arte (beren tokiko ordua) ezin dute txateatu lotan daudelako.

Zein izango litzateke ordu egokia Mark eta Hansek txateatzeko? Idatzi beren tokiko orduak taulan.

Lekua	Ordua
Sydney	
Berlin	

PUNTUAZIOA:

ERABATEKO KREDITUA

1 kodea: Edozein ordu edo denbora-tarte, 9 orduko diferentzia betez eta ondoren agertzen diren denbora-tarte hauen artean aukeratuz:

Sydney: arratsaldeko 4:30 - arratsaldeko 6:00; Berlin: goizeko 7:30 - goizeko 9:00 edo 4:30 PM - 6:00 PM; Berlin: 7:30 AM - 9:00 AM

edo

Sydney: goizeko 7:00 - goizeko 8:00; Berlin: gaueko 10:00 - gaueko 11:00 edo 7:00 AM - 8:00 AM; Berlin: 10:00 PM - 11:00 PM

- Sydney 17:00, Berlin 8:00.

OHARRA: denbora-tarte bat emanda dagonez, denbora-tarte osoak mugak berte behar ditu. Goizeko (AM) edo gaueko (PM) ez du agertzen baina orduak denbora-tarte barruan daudenez, galdera ontzat hartuko da eta erabateko kreditua emango da.

KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk, ordu bat zuzen eman bada ere, baina dagokion ordua oker.

- Sydney goizeko 8:00, Berlin gaueko 10:00.

9 kodea: Erantzunik ez.

10. galdera. INTERNETEN "TXATEATZEN"

M266Q01		ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Aldaketa eta erlazioak	ELGA	28,8
Egoera	Pertsonala	Espainia	21,6
Gaitasuna	Hausnarketa	Gaztela eta León	22,6
Zailtasuna	636 (maila 5)	Katalunia	22,4
		Euskadi	27,7

TRUKE-TASA

Singapurreko Mei-Ling, trukeko ikasle gisa eta 3 hilabete egoteko asmoz, Hego Afrikara joateko prestatzen ari zen. Singapurreko dolar batzuk (SGD) Hego Afrikako rand-en (ZAR) truke aldatu behar zituen.

11. GALDERA: TRUKE-TASA

M413Q01 - 0 1 9

Singapurreko dolarren eta Hego Afrikako rand-en arteko truke-tasa ondokoa zela jabetu zen Mei-Ling: **1 SGD = 4,2 ZAR**

Mei-Lingek Singapurreko 3.000 dolar Hego Afrikako rand-en truke aldatu zituen.

Zenbat diru jaso zuen Mei-Lingek Hego Afrikako rand-etan?

Erantzuna:

PUNTUAZIOA

ERABATEKO KREDITUA

1 kodea: 12.600 ZAR (ez da unitaterik behar).

KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

11. galdera. TRUKE-TASA

M413Q01		ERANTZ. ZUZENAK %	
Edukia	Kantitatea	ELGA	79,7
Egoera	Soziala	Espainia	79,0
Gaitasuna	Erreprodukzioa	Gaztela eta León	83,1
Zailtasuna	406 (maila 1)	Katalunia	81,2
		Euskadi	87,3

12. GALDERA: TRUKE-TASA

M413Q02 - 0 1 9

Hiru hilabeteren ondoren Singapurrera itzultzean Mei-Lingi 3.900 ZAR geratzen zitzaizkion. Singapurreko dolarren truke aldatu zituen eta truke-tasa ondoko honetara aldatu zela ohartu zen: **1 SGD = 4,0 ZAR**

Zenbat diru jaso zuen Mei-Lingek Singapurreko dolarretan?

Erantzuna:

PUNTUAZIOA**ERABATEKO KREDITUA**

1 kodea: 975 SGD (ez da unitaterik behar).

KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

12. galdera. TRUKE-TASA

M413Q02		ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Kantitatea	ELGA	73,9
Egoera	Soziala	Espainia	72,0
Gaitasuna	Erreprodukzioa	Gaztela eta León	78,1
Zailtasuna	439 (maila 2)	Katalunia	71,9
		Euskadi	79,9

13. GALDERA: TRUKE-TASA

M413Q03 - 01 02 11 99

3 hilabete horien ondoren tasa 4,2 ZARetik 4,0ra aldatu zen SGD 1en truke.

Hego Afrikako rand-ak Singapurreko dolarren truke aldatu ondoren, Mei-Lingentzat mesedegarria izan al zen truke-tasa orduan 4,0 ZARekoa izatea, 4,2ren ordez? Erantzuna justifikatuko duen azalpen bat eman.

.....

.....

.....

PUNTUAZIOA**ERABATEKO KREDITUA**

11 kodea: "Bai", azalpen zuzenarekin.

- Bai, truke-tasa aldatzean (SGD 1erako) Mei-Lingek dolar gehiago jasotzen dituelako Hego Afrikako rand-en truke.
- Bai, 4,2 bider dolar bat 929 ZAR izango lirakekeelako. [Nota: el estudiante escribió ZAR en vez de SGD, pero claramente se han llevado a cabo los cálculos y la comparación correctas y puede ignorarse este error]
- Sí, porque recibió 4,2 ZAR por 1 SGD, y ahora solo tiene que pagar 4,0 ZAR para conseguir 1 SGD.
- Sí, porque es 0,2 ZAR más barato por cada SGD.
- Sí, porque cuando se divide por 4,2 el resultado es más pequeño que cuando se divide por 4.
- Sí, era en su favor porque si no hubiese bajado habría obtenido alrededor de 50 dólares menos.

KREDITURIK EZ

01 kodea: "Bai", azalpenik gabe edo azalpen ezegokiarekin.

- Sí, un tipo de cambio menor es mejor.

- Sí, fue a favor de Mei-Ling, porque si baja el ZAR, tendría más dinero para cambiarlo en SGD.
- Sí, fue a favor de Mei-Ling.

02 kodea: Beste erantzun batzuk.

99 kodea: Erantzunik ez.


13. galdera. TRUKE-TASA

M413Q03		ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Kantitatea	ELGA	10,3
Egoera	Soziala	Espainia	30,3
Gaitasuna	Hausnarketa	Gaztela eta León	33,8
Zailtasuna	586 (maila 4)	Katalunia	34,8
		Euskadi	44,8


ESPORTAZIOAK

Beheko grafikoetan Zetalandiako esportazioei buruzko informazioa agertzen da. Herrialde honen dibisa zeta da.

**ZETALANDIAKO URTEKOTESPORTAZIOAK GUZTIRA
MILIOIKA ZETATAN, 1996-2000**



ZETALANDIAKO ESPORTAZIOEN BANAKETA, 2000



14. GALDERA: ESPORTAZIOAK

M438Q01 - 0 1 9

Zein izan zen Zetalandiako esportazioen guztizko balioa (milioika zetan) 1998an?

Erantzuna:

PUNTUAZIOA

ERABATEKO KREDITUA

1 kodea: 27,1 milioi zeta edo 27 .100. 000 zeta edo 27,1 (unitaterik ez da eskatzen).

KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

14. galdera. ESPORTAZIOAK

M438Q01		ERANTZ. ZUZENAK		%
Edukia	Probabilitatea	ELGA		78,7
Egoera	Soziala	Espainia		82,6
Gaitasuna	Erreprodukzioa	Gaztela eta León		85,4
Zailtasuna	427 (maila 2)	Katalunia		83,8
		Euskadi		84,6

15. GALDERA: ESPORTAZIOAK

M438Q02

Zein izan zen Zetalandiatik esportatutako fruta-zukuaren balioa 2000n?

- A) 1,8 milioi zeta.
- B) 2,3 milioi zeta.
- C) 2,4 milioi zeta.
- D) 3,4 milioi zeta.
- E) 3,8 milioi zeta.

PUNTUAZIOA

ERABATEKO KREDITUA

1 kodea: E) 3,8 milioi zeta.

KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

15. galdera. ESPORTAZIOAK


M438Q02		ERANTZ. ZUZENAK		%
Edukia	Probabilitatea	ELGA		48,3
Egoera	Soziala	Espainia		41,9
Gaitasuna	Konexioa	Gaztela eta León		47,3
Zailtasuna	565 (maila 4)	Katalunia		42,9
		Euskadi		46,6

KOLORETAKO GOXOKIAK

16. GALDERA: KOLORETAKO GOXOKIAK

M467Q01

Robertori poltsa batetik goxoki bat aukeratzen utzi dio amak. Robertok ezin ditu goxokiak ikusi. Beheko diagraman, poltsan dauden kolore bakoitzeko goxokien kopurua adierazten da.



Zer probabilitate dago Robertok goxoki gorri bat hartzeko?

- A) %10
- B) %20
- C) %25
- D) %50

PUNTUAZIOA

ERABATEKO KREDITUA

1 kodea: B) %20.

KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

16. galdera. KOLORETAKO GOXIKIAK

M467Q01		ERANTZ. ZUZENAK	
			%
Edukia	Probabilitatea	ELGA	50,2
Egoera	Pertsonala	Espainia	42,1
Gaitasuna	Erreprodukzioa	Gaztela eta León	45,8
Zailtasuna	549 (maila 4)	Katalunia	45,2
		Euskadi	49,6

ZIENTZI AZTERKETAK**17. GALDERA: ZIENTZI AZTERKETAK**

M468Q01

Maddiren ikastetxean, zientziako irakasleak 100 arte puntuatzen diren azterketak egiten ditu. Maddik lehenengo lau zientzi azterketetan lortu duen batez besteko puntuazioa 60 izan da. Bosgarren azterketan lortu duen puntuazioa 80 izan da.

Zein da zientzi azterketetan lortu duen batez besteko puntuazioa bosgarren azterketa egin ondoren?

Batez bestekoa:

PUNTUAZIOA**ERABATEKO KREDITUA**

1 kodea: 64.

KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

17. galdera. ZIENTZI AZTERKETAK


M468Q01		ERANTZ. ZUZENAK		%
Edukia	Probabilitatea	ELGA		46,8
Egoera	Hezkuntzako	Espainia		30,4
Gaitasuna	Erreprodukzioa	Gaztela eta León		29,1
Zailtasuna	556 (maila 4)	Katalunia		41,3
		Euskadi		29,2

FERIA

18. GALDERA: FERIA

M471Q01

Feriako barraka batean, hasteko erruleta bat erabili behar izaten da jokoan hasteko. Erruleta zenbaki bikoiti batean gelditzen bada, orduan poltsa batetik puxtarri bat atera dezake jokalaria. Erruleta eta poltsako puxtarriak ondoko marrazkietan agertzen dira irudikatuta.



Puxtarri beltza ateratzen baduzu sari bat irabazten duzu. Danielak behin jokatu du.

Zenbaterainoko aukera du Danielak sari bat irabazteko?

- A) Batere aukerarik ez.
- B) Aukera gutxi.
- C) %50eko aukera gutxi gorabehera.
- D) Aukera asko.
- E) Aukera guztiak.

PUNTUAZIOA

ERABATEKO KREDITUA

1 kodea: B) Aukera gutxi.

KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

18. galdera. FERIA.


M471Q01		ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Probabilitatea	Proba pilotuaren	
Egoera	Hezkuntzakoa	itema.	
Gaitasuna	Erreprodukzioa	Argitaratu gabeko	
Zailtasuna	—	emaitzak.	

APALAK19. GALDERA: **APALAK**

M484Q01

Apalategi bat osatzeko arotzak honako osagai hauek behar ditu:

Zurezko 4 taula luze, zurezko 6 taula motz, 12 grapa txiki, 2 grapa handi eta 14 torlojo.



Arotzak zurezko 26 taula luze, zurezko 33 taula motz, 200 grapa txiki, 20 grapa handi eta 510 torlojo ditu.

Zenbat apalategi egin ditzake arotzak?

Erantzuna:

PUNTUAZIOA**ERABATEKO KREDITUA**

1 kodea: 5.

KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

19. galdera. APALAK

M484Q01		ERANTZ. ZUZENAK		%
Edukia	Kantitatea	ELGA		60,9
Egoera	Lanekoa	Espainia		57,0
Gaitasuna	Konexioa	Gaztela eta León		61,9
Zailtasuna	499 (maila 3)	Katalunia		60,9
		Euskadi		61,4

ZABORRA

20. GALDERA: ZABORRA

M505Q01 - 0 1 9

Ikasleen talde batek ingurugiroari buruzko etxeko lan bat egin behar du. Horretarako jendeak bota dituen zabor-mota deskonposizio-denborari buruzko informazioa bildu dute :

Zabor mota	Deskonposizio denbora
Banana-azala	1-3 urte
Laranja-azala	1-3 urte
Kartoizko kaxak	0,5 urte
Txikleak	20-25 urte
Egunkariak	Egun batzuk
Plastik. katiluak	100 urte baino gehiago

Ikasle batek deskonposizio-denbora barra -grafiko batean aurkeztea pentsatu du.

Eman arrazoi bat datu horiek aurkezteko barra-grafikoa desegokia dela azaltzeko.

PUNTUAZIOA

ERABATEKO KREDITUA

1 kodea: Arrazoiak datuen bariantza handian edo kategoria batzuei dagokien datuen aldakortasunean oinarrituta dago.

- Barra-grafikoko barren luzeretan legokeen desberdintasuna handiegia litzateke.
- 10 zentimetroko luzera duen barra bat egiten baduzu poliestirenorako, 0,05 zentimetrokoa izango litzateke kartoizko kaxetarako.

O bien

La razón se centra en la variabilidad de los datos de algunas categorías.

- "Poliestirenozko katiluetarako" barraren luzera zehaztugabea da.
- Ezin da 1-3 urterako barra bat edo 20-25 urterako barra bat egin.

KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

- Ez duelako balioko.
- Piktograma bat egokiagoa da.
- Ezin duzu informazioa ziurtatu.
- Porque los números de la tabla son sólo aproximaciones.

9 kodea: Erantzunik ez.

20. galdera. ZABORRA.

M505Q01		ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Probabilitatea	ELGA	51,6
Egoera	Zientifikoa	Espainia	54,7
Gaitasuna	Hausnarketa	Gaztela eta León	67,6
Zailtasuna	551 (maila 4)	Katalunia	45,5
		Euskadi	56,4

LURRIKARA

21. GALDERA: LURRIKARA

M509Q01

Lurrikarei eta beren maiztasunari buruzko dokumentala eman dute telebistan. Eta dokumental horretan lurrikarak alde zurretik jakin ote daitekeen eztabaidatu da.

Geologo batek hauxe zioen: "Zetalandiako hirian datozen hogeitun urteetan zehar lurrikara bat egoteko probabilitatea hirutik bikoia da."

Ondoko esaldi hauetatik zein da geologoak adierazitakoa hoberen islatzen duena?

- A) $\frac{2}{3} \times 20 = 13,3$; Beraz aurrerantzean hemendik 13 eta 14 urte bitarteko tarte horretan lurrikara bat egongo da Zetalandiako hirian.
- B) $\frac{2}{3}$, da $\frac{1}{3}$ baino. Beraz ziur egon gaitzke lurrikara bat izango dela inoiz Zetalandiako hirian datozen 20 urteetan zehar.
- C) Zetalandiako hirian datozen 20 urteetan zehar inoiz lurrikara bat izateko probabilitatea lurrikararik ez izateko probabilitatea baino handiagoa da.
- D) Ezin da esan zer gertatuko den, inork ezin duelako ziur egon noiz gerta daitekeen lurrikara bat.

PUNTUAZIOA

ERABATEKO KREDITUA

1 kodea: C) Zetalandiako hirian datozen 20 urteetan zehar inoiz lurrikara bat izateko probabilitatea lurrikararik ez izateko probabilitatea baino handiagoa da.

KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

21. galdera. LURRIKARA.

M509Q01		ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Probabilitatea	ELGA	46,5
Egoera	Zientifikoa	Espainia	38,8
Gaitasuna	Hausnarketa	Gaztela eta León	43,1
Zailtasuna	557 (maila 4)	Katalunia	46,2
		Euskadi	43,9

AUKERAK

22. GALDERA: AUKERAK

M510Q01

Pizzeriak oinarrizko pizza bat eskaintzen du bi osagairekin: gazta eta tomatea. Horiez gain, bezeroek osagai extra desberdinen artean aukera dezakete. Pizzeriak lau osagai extra desberdin eskaintzen ditu: olibak, urdaiazpikoa, perretxi-koak eta salamia.

Norak bi osagai extra desberdin dituen pizza bat eskatu nahi du.

Zenbat konbinazio desberdin aukera ditzake Norak?

Erantzuna: konbinazio

PUNTUAZIOA

ERABATEKO KREDITUA

1 kodea: 6

KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

22. galdera. AUKERAK

M510Q01		ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Kantitatea	ELGA	48,8
Egoera	Lanekoa	Espainia	51,7
Gaitasuna	Konexioa	Gaztela eta León	57,0
Zailtasuna	559 (maila 3)	Katalunia	47,7
		Euskadi	52,9

AZTERKETAREN PUNTUAZIOA

23. GALDERA: AZTERKETAREN PUNTUAZIOA

M513Q01 - 0 1 9

Beheko diagraman bi taldek egindako Zientziako azterketa baten emaitzak agertzen dira. Taldeei A taldea eta B taldea izena eman zaie. A taldearen batez besteko puntuazioa 62,0 da eta B taldearen batez besteko puntuazioa 64,5 da. Ikasleek 50 puntu edo gehiago lortzen dituztenean gainditzen dute azterketa.

ZIENTZIA AZTERKETAKO PUNTUAZIOAK




Diagrama begiratzean, B taldeak A taldeak baino emaitza hobek lortu dituela adierazi du irakasleak

A taldeko ikasleak ez daude ados irakaslearekin. Eman A taldeko ikasleek erabil dezaketzen argumentu matematiko bat irakaslea konbentzitzeko B taldearen emaitza ez dela zertan hobeia izan.

PUNTUAZIOA

ERABATEKO KREDITUA

- 1 kodea:** Ontzat hartzen den argumentu bat eman da. Hona hemen ontzat hartzen diren argumentuak.
- A taldean B taldean baino ikasle gehiagok gainditu dute azterketa;
 - Ahazten bazara A taldeko ikasle txarrenaz, A taldeko ikasleek B taldeko ikasleek baino emaitza hobek lortu dituzte;
 - A taldean B taldean baino ikasle gehiagok lortu dute 80 puntu edo gehiago.

KREDITURIK EZ

- 0 kodea:** Beste erantzun batzuk, arrazoi matematikoak eman gabe izan diren erantzunak barne direla, edo arrazoi matematiko okerrak eman dituztenak
- A taldeko ikasleak normalean B taldeko ikasleak baino hobek dira zientzian. Azterketa honen emaitzak kointzidentzia bat besterik ez dira.
 - Porque la diferencia entre las puntuazioa más altas y más bajas es menor para el Grupo B que para el Grupo A.

- El Grupo A tiene mejores puntuazioa en el rango 80-89 y el rango 50-59.
- El Grupo A tiene un rango intercuartil mayor que el Grupo B.

9 kodea: Erantzunik ez.

23. galdera. ARTEZKETAREN PUNTUAZIOA.

M513Q01		ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Probabilitatea	ELGA	32,2
Egoera	Hezkuntzako	Espainia	27,8
Gaitasuna	Konexioa	Gaztela eta León	28,4
Zailtasuna	620 (maila 5)	Katalunia	38,0
		Euskadi	27,8

HAURRENTZAKO OINETAKOAK

Ondoko taulak Mendialdean gomendatzen diren oinetako-zenbakiak agertzen dira oinen luzera desberdinetarako.



MENDIALDEKO HAUREN OINETAKO-ZENBAKIETARAKO BIHURKETA-TAULA

Zapata zenbakia	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35
Nondik (mm-tan)	107	116	123	129	135	140	147	153	160	167	173	180	187	193	200	207	213	220
Noraino (mm-tan)	115	122	128	134	139	146	152	159	166	172	179	186	192	199	206	212	219	226

24. GALDERA: HAURRENTZAKO OINETAKOAK

M515Q01

Marinaren oina 163 mm luze da. Erabili taula Mendialdean Marinak probatu beharko lukeen oinetako-zenbakia zein den zehazteko.

Erantzuna:

PUNTUAZIOA

ERABATEKO KREDITUA

1 kodea: 26.

KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

24. galdera. HAURRENTZAKO OINETAKOAK

M515Q01		ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Aldaketa eta erlazioak	Proba pilotuaren	
Egoera	Pertsonala	itema.	
Gaitasuna	Erreprodukzioa	Argitaratu gabeko	
Zailtasuna	—	emaitzak.	

PATINETEA

Enekorri izugarri gustatzen zaio patinetean ibiltzea. SKATERS izeneko denda batera joan da prezioak ikustera.

Denda horretan patineta osorik eros daiteke. Baina baita pieza bakoitza solte ere, norberak patineta montatzeko. Solte saltzen dira: gaineko taula, 4 gurpileko sorta, 2 bogieko sorta eta tresneria-sorta.

Dendako produktuen prezioak hauexek dira:

Produktua	Prezioa zetatatan	
Patineta osorik	82 edo 84	
Gaineko taula	40, 60 edo 65	
4 gurpileko sorta bat	14 edo 36	
2 bogieko sorta bat	16	
Tresneria sorta bat (errodamenduak, gomazko kuxinak, torlojoak eta azkoinak)	10 edo 20	

25. GALDERA: PATINETEA

M520Q01

Enekok bere kasa muntatu nahi du patineta. Denda honetan zein da norberak muntatzeko eskaintzen diren patinetaen gutxieneko prezioa eta gehieneko prezioa?

(a) Gutxieneko prezioa: zeta

(b) Gehieneko prezioa: zeta

PUNTUAZIOA

ERABATEKO KREDITUA

21 kodea: Biak, gutxieneko (80) eta gehieneko prezioa (137) ondo ipinita.

KREDITU PARTZIALA

11 kodea: Bakarrik gutxieneko prezioa (80) ondo ipinita.

12 kodea: Bakarrik gehieneko prezioa (137) ondo ipinita

KREDITURIK EZ

00 kodea: Beste erantzun batzuk.

99 kodea: Erantzunik ez.

25. galdera. PATINETEA.

M520Q01		ERANTZ. ZUZENAK		%
Edukia	Kantitatea	ELGA		10,6
Egoera	Pertsonala	Espainia		10,1
Gaitasuna	Erreprodukzioa	Gaztela eta León		11,1
Zailtasuna	464 (maila 2)	Katalunia		11,1
		Euskadi		9,0

M520Q01		ERANTZ. ZUZENAK		%
Edukia	Kantitatea	ELGA		66,7
Egoera	Pertsonala	Espainia		66,6
Gaitasuna	Erreprodukzioa	Gaztela eta León		69,6
Zailtasuna	496 (maila 3)	Katalunia		71,2
		Euskadi		72,7

26. GALDERA: PATIENETEA

M520Q02

Dendak hiru taula desberdin, bi gurpi-sorta desberdin eta bi tresneria-sorta desberdin eskaintzen ditu. Bogue-sortarako aukera bakar bat besterik ez dago.

Zenbat patinete desberdin eraiki ditzake Enekok?

- A) 6
- B) 8
- C) 10
- D) 12

PUNTUAZIOA**ERABATEKO KREDITUA**

1 kodea: D) 12

KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

26. galdera. PATINETEA.

M520Q02		ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Kantitatea	ELGA	45,5
Egoera	Pertsonala	Espainia	43,0
Gaitasuna	Erreprodukzioa	Gaztela eta León	47,6
Zailtasuna	570 (maila 4)	Katalunia	45,8
		Euskadi	49,4

27. GALDERA: PATINETEA

M520Q03

Enekok 120 zeta ditu gastatzeko eta ordain dezakeen patineterik garestiena erosi nahi du.

Zenbat diru gasta dezake Enekok 4 zatietako bakoitzean? Adierazi erantzuna beheko taulan.

Osagaia	Zenbatekoa (ZETA)
Taula	
Gurpilak	
Bogieak	
Tresneria	

PUNTUAZIOA:**ERABATEKO KREDITUA**

1 kodea: Taula 65 zeta; gurpilak 14; bogieak 16 eta tresneria 20.

KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

27. galdera. PATINETEA.

M520Q03		ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Kantitatea	ELGA	49,8
Egoera	Pertsonala	Espainia	46,0
Gaitasuna	Konexioa	Gaztela eta León	51,8
Zailtasuna	554 (maila 4)	Katalunia	49,4
		Euskadi	53,9

PING-PONG LEHIAKETA



28. GALDERA: PING-PONG LEHIAKETA

M521Q01 - 0 1 9

Iker, Mikel, Eneko eta Jonek entrenatzeko talde bat eratu dute ping-pong elkarte batean. Jokalari bakoitzak behin jokatuhatu nahi du gainerako jokalarietako bakoitzaren kontra. Bi mahai erreserbatu dituzte ping-pong partida horiek jokatzeko.

Osatu ondoko taula partida bakoitzean jokatuko duten jokalarien izenak idatziz.

	1. mahaia	2. mahaia
1. txanda	Iker-Mikel	Eneko-Jon
2. txanda - -
3. txanda - -

PUNTUAZIOA:

ERABATEKO KREDITUA

1 kodea: Jokatzen dauden lau partidak 2. eta 3. txandetan zuzen deskribatuta eta banatuta.

- Adibidez:

	1. mahaia	2. mahaia
1. txanda	Iker-Mikel	Eneko-Jon
2. txanda	Iker-Eneko	Mikel-Jon
3. txanda	Iker-Jon	Mikel-Eneko

KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.


28. galdera. PING-PONG LEHIAKETA.

M521Q01		ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Probabilitatea	Proba pilotuaren	
Egoera	Pertsonala	itema.	
Gaitasuna	Erreprodukzioa	Argitaratu gabeko	
Zailtasuna	—	emaitzak.	

CO₂ MAILAK

Zientzialari asko beldur dira gure atmosferako CO₂ maila gehitu izana ez ari ote den klima aldaketa eragiten.

Ondoko diagramak 1990ean herrialde (edo eskualde) desberdinetan isuritako CO₂ mailak (barra argiak), 1998an isuritako mailak (barra ilunak), eta 1990etik 1998ra isuritako CO₂ mailen aldaketen portzentajeak (portzentajeekin agertzen diren geziak) erakusten ditu.



29. GALDERA: CO₂ MAILAK

M525Q01 - 0 1 2 9

Diagraman irakur daitekeenez, Estatu Batuetan 1990etik 1998ra arteko CO₂ isurien gehikuntza %11koa izan zen.

Idatzi kalkuluak %11 hori nola lortzen den erakusteko.

PUNTUAZIOA:

ERABATEKO KREDITUA

2 kodea: Kenketa zuzena, eta portzentajearen kalkulu zuzena.

- $6.727 - 6.049 = 678$; $678 : 6.049 \times 100 \approx 11\%$

KREDITU PARTZIALA

- 1 kodea:** Kenketa okerra eta portzentajearen kalkulu zuzena, edo kenketa zuzena baina 6.727az zatituz.
- $6.049 : 6.727 \times 100 \approx 89,9\%$ y $100 - 89,9 = 10,1\%$

KREDITURIK EZ

- 0 kodea:** Beste erantzun batzuk, Bai edo Ez bakarrik adierazten dutenak.
- Bai, %11 da.
- 9 kodea:** Erantzunik ez.

29. galdera. CO₂ MAILAK.

M525Q01		ERANTZ. ZUZENAK %
Edukia	Kantitatea	Proba pilotuaren itema. Argitaratu gabeko emaitzak.
Egoera	Zientifikoa	
Gaitasuna	Konexioa	
Zailtasuna	—	

30. GALDERA: LOS NIVELES DE CO₂

M525Q02 - 0 1 9

Mirenek diagrama aztertu zuen eta isuritako CO₂ mailen aldaketaren portzentajea hutsegite bat topatu zuela esan zuen: "Alemanian (%16) isuriaren portzentajearen beherakada Europar Batasun osoko (EBn guztia %4) isuriaren portzentajearen beherakada baino handiagoa da. Hori ez da posible, Alemania Europar Batasunaren barruan dagoelako".

Ados al zaude Mirenekin hori posible ez dela dioenean? Eman azalpen bat zure erantzuna arrazoituz.

PUNTUAZIOA:**ERABATEKO KREDITUA**

- 1 kodea:** Ez, azalpen zuzena emanaz.
- Ez, EBko beste herrialde batzuek gehitu ahal izan dute, adib. Herbehereek. Beraz, EBko guztizko beherakada Alemaniako beherakada baino txikiagoa izan daiteke.

KREDITURIK EZ

- 0 kodea:** Beste erantzun batzuk.
- 9 kodea:** Erantzunik ez.

30. galdera. CO₂ MAILAK.

M525Q02		ERANTZ. ZUZENAK %
Edukia	Kantitatea	Proba pilotuaren itema. Argitaratu gabeko emaitzak.
Egoera	Zientifikoa	
Gaitasuna	Konexioa	
Zailtasuna	—	

31. GALDERA: CO₂ MAILAK

M525Q03 - 0 1 2 9

Miren eta Andoni ez datoz bat isuritako CO₂ mailak gehien gehitu zireneko herrialdea (edo eskualdea) zein den eztabaidatzean.

Bakoitzak ondorio desberdinak atera ditu diagraman oinarrituta.

Eman galdera honi bi erantzun "zuzen" posible eta azaldu nola lor daitekeen erantzun horietako bakoitza.

PUNTUAZIOA:**ERABATEKO KREDITUA**

2 kodea: Erantzunak arazoarekiko bi hurbilketa matematikoak identifikatzen ditu (gehikuntza absolutu handiena eta gehikuntza erlatibo handiena) eta Estatu Batuak eta Australia aipatzen ditu.

- Estatu Batuak gehikuntza handiena du milioika tonatan eta Australiak gehikuntza handiena du portzentajearen.

KREDITU PARTZIALA

1 kodea: Erantzunak aldi berean gehikuntza absolutu handienak eta gehikuntza erlatibo handienak identifikatu eta aipatzen ditu, baina ez ditu herrialdeak identifikatzen, edo okerreko herrialdeak aipatzen ditu.

- Errusiak gehikuntza handiena izan zuen guztizko CO₂ mailetan (1.078 tona), baina Australiak gehikuntza handiena izan zuen portzentajearen (%15).

KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

31. galdera. CO₂ MAILAK.

M525Q03		ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Kantitatea	Proba pilotuaren itema. Argitaratu gabeko emaitzak.	
Egoera	Zientifikoa		
Gaitasuna	Hausnarketa		
Zailtasuna	—		

ESPAZIOKO HEGALDIA

Mir estazio espaziala 15 urtez egon zen orbitan eta aldi horretan gutxi gorabehera 86.500 bira egin zituen Lurraren inguruan.

Mirren astronauta batek egindako egonaldi luzeena 680 egunekoa izan zen.

32. GALDERA: ESPAZIOKO HEGALDIA

M543Q03 - 0 1 2 9

Mir estazioak gutxi gorabehera 400 kilometroko altueran egiten zituen birak Lurraren inguruan. Lurraren diametroak 12.700 km inguru neurtzen ditu eta bere zirkunferentzia 40.000 km.koa (π o 12.700) da gutxi gorabehera.

Kalkulatu gutxi gorabehera Mir estazioak orbitan egon zen bitartean egin zituen 86.500 biretan egindako guztizko distantzia. Biribildu emaitza milioi hamarrekotara.

PUNTUAZIOA:

ERABATEKO KREDITUA

2 kodea: 3.600 eta 3.800 milioi kilometro bitarteko erantzuna, milioi hamarrekotara biribilduz.

- Lurraren diametroa ≈ 12.700
Mirren orbitaren diametroa ≈ 13.500
Orbita baten luzera ≈ 42.000
Guztira 3.630 milioi kilometro.
- Orbita baten luzera haxe da: $40.000 + 2\pi \times 400 = 42.513$ km
Guztira 3.677,4 milioi kilometro. Beraz, erantzuna 3.680 milioi kilometro da.

KREDITU PARTZIALA

1 kodea: Prozedurazko hutsegite bakar bat.

- Erradioa erabili du diametroaren orde.
- 400 gehitu du 800 orde Mirren orbitaren diametroa kalkulatzeko.
- Ez du eskatzen zaion bezala biribildu (adibidez, milioira biribildu du milioi hamarrekotara biribildu beharrean)

KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

32. galdera. ESPAZIOKO HEGALDIA.


M543Q03		ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Kantitatea	Proba pilotuaren	
Egoera	Zientifikoa	itema.	
Gaitasuna	Konexioa	Argitaratu gabeko	
Zailtasuna	—	emaitzak.	

ESKAILERA

33. GALDERA: ESKAILERA

M547Q01

Beheko diagraman agertzen den eskailerak 14 maila ditu eta guztira 252 cm-ko altuera du:



Zein da 14 mailetako bakoitzaren altuera?

Altuera: cm.

PUNTUAZIOA

ERABATEKO KREDITUA

1 kodea: 18 cm.

KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.


33. galdera. ESKAILERA.

M547Q01		ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Espazioa eta forma	ELGA	78,0
Egoera	Lanekoa	Espainia	78,2
Gaitasuna	Erreprodukzioa	Gaztela eta León	78,2
Zailtasuna	421 (maila 2)	Katalunia	76,2
		Euskadi	84,9

KUBO ZENBAKIDUNAK

Eskuinaldeko irudian, bi dado agertzen dira.

Dadoak zenbakiak dituzten kubo bereziak dira. Dadoetarako ondorengo araua aplikatzen da: Aurkako bi aldetako puntuen gutzizko kopuruak zazpi izan behar du beti.




34. GALDERA: KUBO ZENBAKIDUNAK

M555Q01

Eskuinaldeko irudian hiru dado agertzen dira, bata bestearen gainean. "1" dadoak goiko aldean lau puntu ditu.

Zenbat puntu dira guztira ikusten ez diren bost alde horizontaletan ("1" dadoaren beheko alde, "2" eta "3" dadoen goiko eta beheko aldeak)?



PUNTUAZIOA

ERABATEKO KREDITUA

1 kodea: 17.

KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

9 kodea: Erantzunik ez.

34. galdera. KUBO ZENBAKIDUNAK


M555Q01		ERANTZ. ZUZENAK	%
Edukia	Espazioa eta forma	Proba pilotuaren	
Egoera	Pertsonala	itema.	
Gaitasuna	Konexioa	Argitaratu gabeko	
Zailtasuna	—	emaitzak.	

35. GALDERA: KUBO ZENBAKIDUNAK

M555Q02

Kubo zenbakidun bat egiteko kartulina-zati bat moztu, tolestu eta kolaz erantsi besterik ez da egin behar. Modu askotan egin daiteke. Beheko irudian lau ebakin agertzen dira, aldeetan puntuak dituzten kuboak egiteko erabil daitezkeenak.

Ondoren agertzen diren formatatik zeintzuk toles daitezke lehen adierazitako aruari jarraituz aurkako aldeak batzearen emaitza 7 izateko moduan. Forma bakoitzeko, markatu beheko taulan "Bai" edo "Ez" biribil batez.



Forma	Arauari jarraituz, aurkako aldeak batuz emaitza 7 izango al da?
I	Bai / Ez
II	Bai / Ez
III	Bai / Ez
IV	Bai / Ez

PUNTUAZIOA

ERABATEKO KREDITUA

1 kodea: Ez, Bai, Bai, Ez, ordena horretan.

KREDITURIK EZ

0 kodea: Beste erantzun batzuk.

